



16/2022 EBAZPENA, otsailaren 3(e)koa, Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Barakaldo Sestaoko ESiko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerentearen ekainaren 7ko 231/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Barakaldo Sestaoko ESiko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021ko irailaren 28ko EHAA 194 zk. eta 2021ko urriaren 5ko BOE 238 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021ko urriaren 27(a)n amaitu zen.

Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerentearen azaroaren 18ko 328/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Barakaldo Sestaoko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,



EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldon 2022ko ekainaren 3(a).

Barakaldo-Sestaoko ESlaren zuzendari gerentea,
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZARRAGA.



Osakidetza

BARAKALDO-SESTAOKO ESI
OSI BARAKALDO-SESTAO
ZUZENDARI GERENTEA
DIRECTOR GERENTE
D. Joseba Julen Ballestero Zarraga



I. ERANSKINA

**BARAKALDO SESTAO ESIKO LARRIALDIETAKO ZERBITZU SANITARIOKO
BURUA IZENENKO LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin-betiko zerrenda:

Miren Amaia Ruiz Etxebarria

Baztertuak:

Ez dago

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.



II. ERANSKINA

**BARAKALDO SESTAO ESIKO LARRIALDIETAKO ZERBITZU SANITARIOKO
BURUA IZENENKO LANPOSTUA**

BALORAZIO BATZORDEA

***Epaimahaiburua**

Titular: Maria Lourdes Vivanco Gómez

Ordezkoa: Joseba Julen Balletero Zárraga

***Idazkaria:**

Titular: Karmele Iglesia Rosende

Ordezkoa: Miren Idoia Sagarminaga Ugalde

***Lehenego kidea:**

Titular: Ana Jesús Bustinduy Bascaran

Ordezkoa: Ainhoa Epalza Bueno

***Bigarren kidea:**

Titular: Mercedes Varona Peinador

Ordezkoa: Fernando Ugalde García

***Hirugarren kidea:**

Titular: Miguel Enrique Ortega Marcos

Ordezkoa: Pedro Lopetegui Eraso

***Laugarren kidea (IVAPek proposatua):**

Titular: Miren Arantza Aguillo García

Ordezkoa: Jose Luis Blázquez Díez